



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2017-11-20

BILERA ZENBAKIA: 44

ORDUA ETA LEKUA: 18:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Lau neska eta mutil bat

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Azkeneko aktaren onarpena
2. Etxeko lanak
3. Aurrekontuak.
4. 2018ra begira antolaketa

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA

Ez dago ekarpenik eta onartuta geratzen da.

2. ETXEKO LANAK

- **JANARI BANAKETARAKO LOKAL BERRIAREN ARAUDIA.**

Egin beharreko ekarpenak egin dira, eta, hurrengo lantalderako araudi berria aurkeztuko da.

GOIEKI. GENERO INDARKERIAREN INGURUKO INFORMAZIOA.

Soraluzeko eredia aztertu da Itsasondo antzeko zerbait egin ahal izateko. Txosten bat egingo da barne material bezala, eta, ondoren esku orri batean zerbitzuen gida aterako da. Lan hau, martxorako egina egon beharko da, hurrengo aldizkarian (apirilean) argitaratu nahi baita. Aldizkarian, portadan lekua izatea, eta erdiko orrietan gidaren esku orria jartzea planteatzen da.

AZAROAK 25

Azaroak 25 eta martxoaren 8rako pankartak ekarri dira lantaldera. Horrez gain, emakundek sortutako puntu lila ereduarekin pegatinak egin dira. Txikiak, herritarren artean banatuko dira, handiak honako erreferentziatzko lekuetan banatuko dira: botika, jubilatuetan, haurreskola, janari denda, eskola, Arbelaitz, Kaxinta, Nautikoa, ludoteka-liburutegia eta mediku etxea.



MARTXOAK 8

Martxoak 8rako bertsolariak lotu dira, zortzietan plazara agertzeko esan zaie, bertso batzuk abestuko dituzte afaltzera joan aurretik, eta, afal ondoren saioa egingo dute.

Batukada taldea entsaioretan hasi da, martxoak 8an jotzeko prest ote dauden galdetuko zaie.

ALDIZKARIA.

Etorri berriei egin beharreko elkarrizketa lotua dago, eta, Idoiari egin beharrekoa martxan da.

ARNASKETA IKASTAROA

Lekua, eguna eta ordua lotu da, kartelak martxan dira. Gela hartu, eta berogailua pizteko eskaria egin behar da.

BONO SOZIALAREN INGURUKO INFORMAZIOA.

Bono sozialen inguruan argindar enpresa batek argitaratutako baldintzak, eskatutako dokumentazioa, etab. azaldu dira. Kontsumo mailaren inguruko dudak suertatu dira, eta, informazioa osatzeko beharra sortu da. Lantaldearen ondorengo egunetan osatua izan da informazioa.

Nork jaso dezake bono soziala:

1- Gutxieneko diru sarreretara heltzen ez diren elkarbizitza unitateak:

- 805,67€ edo gutxiago adin txikikorik ez duten elkarbizitza unitateen kasuan (pertsone bakarra edo bikotea)
- 1.074,23€ edo gutxiago adin txikiko bat duten bizikidetzaren unitateen kasuan
- 1.331,27€ edo gutxiago bi adin txikiko dituzten elkarbizitza unitateen kasuan.

2- Familia ugaria osatzen duten elkarbizitza unitateak:

Diru sarrera mugarik ez dute.

3- Kideak pentsionista diren elkarbizitza unitateak.

Zenbateko minimoak jasotzen dituztenean eta bestelako diru iturririk



ez dutenean.

4- **Kategoria bereziak** (biolentzia matxista, ezgaitasuna %33tik gora; terrorismo biktimak)

Adin txikikorik ez den elkarbizitza unitateen kasuan (pertsona bakarra edo bikotea): 1.074,23€ hilean: arrisku egoeran / 402,84€ hilean: arrisku egoera handian / diru sarrera gutxiago: bazterketa egoeran.

Adin txikiko bat duten bizikidetzak unitateen kasuan: 1.342,78€ hilean: arrisku egoeran / 537,12€ hilean: arrisku egoera handian / diru sarrera gutxiago: bazterketa egoeran.

Bi adin txikiko dituzten elkarbizitza unitateen kasuan: 1.611,34€ hilean arrisku egoeran / 671,12€ hilean: arrisku egoera handian / diru sarrera gutxiago: bazterketa egoeran.

Bono sozialaren zenbatekoa: Arrisku mailaren arabera jasotako diru laguntza ezberdina izango da: Arrisku egoeran daudenek fakturan ordaindu beharrekoaren %25eko deskontua izango dute eta arrisku egoera handian, nahiz bazterketa egoeran daudenek %40koa.

Kontsumo muga: Honakoak izango dira deskontua jaso ahal izateko elkarbizitza unitateek izan beharreko kontsumo mugak.

- Adin txikikorik ez den elkarbizitza unitatean: (pertsona bakarra edo bikotea) 1200 kWh/urtean.
- Adin txikiko bat den elkarbizitza unitatean: eta pentsiodunen kasuan: 1680 kWh/urtean.
- Bi adin txikiko diren elkarbizitza unitatean: 2010kWh/urtean.
- Familia ugarien kasuan: 3600 kWh/urtean.
- **Kategoria berezian daudenek, aipatutako kontsumo baremoak bete beharko dituzte.**

Bono sozialaren onuradunek faktura ordaintzen ez badute 4 hilabeteren bueltan, energia hornikuntza moztuko zaie. Bazterketa egoeran dauden bizikidetzak unitateen kasuan ez da moztetarik izango.

Eskaera:

- Bono soziala eskaintzen duten konpainiak: Endesa, Iberdrola, Gas natural, EDP, eta Viesgo dira.
- Eskaera, telefono bidez edota konpainiara joanda egin daiteke. Norberak bere egoera ziurtatzeko beharrezko dokumentuak aurkeztu



beharko ditu. Konpainietako web orrietan agertzen dira baldintzen eta aurkeztu beharreko dokumentuen xehetasunak.

3. AURREKONTUAK.

Datorren urterako aurrekontuaren inguruan honakoa adostu da:

— **GLL - Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako (GLL): 3.000€**

Lege berriak dio Aldundiak emandakoaren %30a baino gehiago jartzen badu Udalak, hurrengo urtean eman beharreko kopurua igo egiten dela. Begiratu beharra dago. Aurtengo pendienteak ordaindu ote daitezkeen begiratu.

— **Hitzaldiak: 500€**

Diru kopuru bat gordeko da urtean zehar interesgarri deritzogun gaien inguruan, edo beharrak markatzen duenaren arabera hitzaldiak antolatzeko. Datorren urtean ez da hileko pelikula emanaldia aurrera aterako eta posible da hitzaldi hau pelikula batekin osatzea.

— **Berdintasuna: 1.500 €**

Emaginekin berriro ere sentsibilizazio, edo, lanketa proiektu bat martxan jar daiteke. Horretarako koordinazio bat egon behar da eskola eta Ongizate lantaldearen artean. Garrantzitsua baita jakitea eskola zein lan burutzen dabilen eta zein diren somatzen diren beharrak. Hitzaldiak programak eta bestelako zerbitzuen zerrenda baten berri eman da, herrian berdintasuna lantzeko interesgarri izan daitezkeen ekintzak agertzen direna. Bistada bat bota eta beharrak zeintzuk diren ikusi aipatutako ekintzak baliatzeko aukera ikusten da.

— **Janari banaketarako lokal berria: 2.000 € + takilak (pendiente)**

Lokala egokitzeko aurreikusitako gastua 2.000 €koa da, aurrez azaldu bezala. Takilen aurrekontua zehaztea falta da.

— **Familia esku hartzea: (pendiente)**

Oraintxe bi familia esku hartze ditugu martxan, eta, datorren urterako ez da berririk aurreikusten oraingoz. Familia esku hartzeen kostua kalkulatzeko IZAN enpresari datorren urteko aurrekontua eskatuko zaio.

Goiekin familia esku hartze programarako herri bakoitzak diru kopuru bat



jartzen du. Udalarri IZANek diru kopuru horren truke zein doako zerbitzu ematen dion galdetuko da Goiekin.

4. 2018KO ANTOLAKETA.

Datorren urtean lantalde bilerak hilean behin edo bitan egitea, zer den hobe planteatu da, izan ere azken hilabeteetan lantaldeetako bileretara gerturatuko kide kopuruak behera egin du.

Hilean behin egitea erabaki da denon artean, eta, eguna astelehenean izan beharrean asteazkenetan jartzea, 19:00etan. Aipatu da, lantaldeak hartzen duen martxaren arabera ikusiko dela bilera kopurua murriztuko den edo ez.


Bestalde datorren urtera begira urtarrilean jorratu nahi diren gaiak finkatu beharra ikusi da. Gauza asko ez egin eta ondo egiteari lehentasuna ematea erabaki da, gauza asko egin eta ezin iritsi ibiltzea baino egokiago dela baieztatu da.

Aurreko bileretan aipatu bezala, ez da hileroko pelikula emanaldiekin aurrera egingo. Hilero emanaldi bat egitea gehiegi dela erabaki delako, aldi berean, emanaldiak askotan oso emankorrak direla aipatu da, eta, inizatiba guztiz ez baztertzea interesgarria litzakeela. Zentzu horretan, urtean 2-3 emanaldi egin, eta, pelikulak jorratzen duen gaia sakontzeko hitzaldi eta bestelakoak antolatzea egoki ikusi da.

MEMORIA TAILERRA

2018rako, memoria tailerrean erabili ahal izateko liburuxka bat egiteko lantalde bat bildu da. Helburua, tailerra ematen dutenek, eta, jasotzen dutenek liburuxka bat izatea da. Liburuan diseinua egiteko lantalde bat bildu da eta jada edukia finkatuta dago, ariketak eta jolasak konbinatuko dira (piktionari, memori, mandalak marraztea, etab) Ekain-artekoa egingo da, oraingoz. Nola funtzionatu duen ikusi eta datorren ikasturterako beharrezko aldaketak eginik liburuxka berria sortuko da.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Indarkeria matxista. Baliabide gida	Martxo	Gizarte Langilea.
GLL %30 begiratu. Familia esku hartzea aurrekontua	Azaro bukaera	Gizarte Langilea.
Famili esku hartzea. Goiekiri galdetu zerbitzua.	Azaro bukaera	Gizarte Langilea
Berdintasuna eskolarekin koordinazioa jarri.	Urtarrilerako	Datorren bileran lotu.
Martxoak 8rako batukada lotu	Urtarrilerako	Jabi
Datorren urterako gaiak pentsatu.	Urtarrilerako	Denak



Janari banaketa araudi berria.	Urtarrilerako	Gizarte Langilea
Takilen aurrekontua	Urtarrilerako	Erkuden

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, 2018ko urtarrilaren 13an egingo dugu, asteazkena arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

- Aurreko aktaren onarpena
- Etxeko lanen errepassoa
- 2018an jorratu beharrako gaien aukeraketa eta antolaketa
- Egutegia.